

BAROJA-ren echia eda moldiztegi zarra

II

Ez naiz baztar miraketan ibilli lan oetarako bear dan bezela, bañan nere borondatiari osakisun aundi bat eman nairik, nai izan det besterik ezpada ere, Adrian Loyarte jaunaren apaletatik zerbaiten jabe egin, eta borondate aundiz utzi ziran nere mende bere liburu mordoska aundi ura.

Beste Baroja bat ere ezagutu izan detana da Kollao karrikako bosgarraren zenbakiko echian, Urumea zeritzon izper bat luzaro samar argitaratu izan zubena; au ere beste oyek bezela Baroja-tarra zan, eta izenez Rikardo.

Guztiyak izan dira pizkorrak beren eginkisunetan, batez ere aipatu detan oyetzaz gañera, beste, ezer esan gabe iya baztarrean utzi nituben Serafin, eta oraingo izkribalari bikaiñ Pio.

¿Zer kabi ederra suaitz baterako orrenbeste chiturekiñ! Eta guztiyak kantari ederrak.

Eta ¿ez ailditut argitaratu bear beste euskal izkribalari gaiñ gañeko, eche ontatik beren egintzak argitaratu dituztenak?

¿Zer gaitz egin dute bada, errenkada arlote oetaratu gabe aztutzat usteko?

¿Noizko utziko ditut eta zergatik baztarreraturik, Klaudio Otaegi, Migel Antonio Iñarra, Ondarrabiko ikastol maisu eta Pasai Done Juango apaiza, Erramun Artola ipuigille bikaiñ bikaña; Felipe Arrese Beitia, Pierre Dibarrart, Bilinch, Elizanburu ta beste geyago, azpergarri ez izatitak, eta Dierriko agintari edo Gobernuak gudari biltzalletzat artu ez nazan usten ditutanak?

Badakit izen guztiyak orri oetan ipiñiko banitu, edo ala deritzot beintzat, kate sendoz loturik eramango mindutekiela..... (jainbesteche diral) gaištokayolara gure izkuntza ezagutzen ez duten oriye.

Arrazoi onegatik usten diyot bada izenak pillakatzeari, zergatik echiari dagokiyori gauzari jarraitu ohea dan, aldala.

Eta ¿zer esango det Andre Jošepa Baroja-ren senar, ontasuna beste-rik bere biyotzetik etzeriyon Kanuto Inazio Muñoz jaun zanagatik ?

¿Ez algenduen ikusi askotan, Antzoki, karrika Nagusikuan, bertso-lariyen buru ta zuzendari agertzen, berak asiya edo oña emanik?

Au izan zan urte ayetan Jose Manterola zanaren laguntzalle biyotzetikakua, eta au, Ama Euskararen bular gozotik, biziyak iraun ziyon bitartean, zaletasun aundiyarekiñ askocho edan zubena.

Euskerak zeukan guztiz mendean artua, eta beragatik egiñal aundi-yak egiten zituben Gipuzkoa-ko ikastol maisuen zaitzalle izan zan-Ka-nuto Inazio Muñoz-ek.

Au, ta bere lagun maite Manterola, Iraztorza, Gorostidi, Arzak, Artola, Jose Manuel Agirre-Miramón, Zapirain eta beste zenbaitzuek, izan ziran azkeneko gud'ondorean euskera birpizten asi ziranak, Ikaz karrikan, bi echetako leyo baraudunetatik, bertsolariyak elkar gudan ipiñirik.

Gerora bururatu zitzayen Plaza Berri edo Konstituziyokoan, bertso-lariyen bilguma on otsaundiko bat egitia, eta au guchicho iruditurik, polliki, polliki, egin zuten sarrera polli bat, len aipatu detan antzokira, erakarririk erri chikietako chistulariyak.

Bañan au ere guchicho zeritzaten eta nola Martzelino Soroa-k *Gim-nasio* zeritzon zotarrin batean iruditegi chiki bateratu zituben *Idi-ya-rena-ren* izenarekiñ ezagungarritu zuben jostirudi algaragillea, ta beste orlako batzuek, bururatu zitzayen urtean beiñ, eta Done Tomas egu-nean jaun onekiñ bat egiñik, aurkestaldi euskarazkuak egitia.

Geroztik dira Antzoki zarrean egiten diran jai aldi ederrak, Euskal-dun Fedea-ren erabakiz, eta Euskal itz-jostaldien Batzarrearen lagun-tzaz.

Oek guztiyak ¿nondik atera dira? Baroja-ren moldiztegitik; eta ¿nondik nora du bere ondekiera Donostiar Kantaritaldeak? ¿Nondik izango du? Baroja-ren echetik onek ere.

Ondo goguan daukat 1896-^{garren} urteko Mayatz-illaren lenengo egu-netako batean, nola izan zuten Antonio Arzak, Balentiñ Muñoz Baroja eta beste batek elkar izketa bar orrenbeste bider aipatu detan Baroja-

ren echian, Mondragoiko euskal jolasak jaitu bar ziralako lenengo aldiz erri ontan.

Arzak jaunak galdetu ziyen Balentiñ eta beste orri, ¿ia nola molda zitezkien ogei bat laguneko kanaritalde bat, eta antzokitar mordozkacho bat.

Biyak erantzun ziyoten jaun ari, alegiñak egingo zituztela onen naierari poz ori ematez, eta bertatik asiko ziralako lagun billa; egun guchiren barru arkitu zuben Arzak jaunak bere opaya betia, eta lenengo irteera egin zuten Mondragoiko euskal jayetara, Donostiar Kantaritaldeak eta Euskaldun Fedeak esan detan urtebo Uzta-ren 5-an Euskaldun Fedeak eta 7-an Donostiar Kantaritaldeak, eta oek geroztik elkarrekin jaitzen dute Done Tomas eguna, Donostiyako Antzoki zarrean, mordo bateko matz aleak balira bezela, oso pake onez ta atsegintasunean.

Orain ¿nondik datorkiyela esango zenduteke talde oeri biyeri beren izaera? Buru auzte aundirik egin bearrik ez du batek galde oni erantzuteko: Baroja-ren ehetik.

¡Ayek egunak igaro genituben, Balentiñ! ¡Millikuaneko eche atadiyak izketan baleki!

Guchicho, bañan ayek egunak jaitu genituben erri artan; nik ez dakit nola bertan gelditu ez giñan, bada urte ayetan ango Erribatzarreko goarpelaritza egiten zuben Madinabeitia jaunak etzekiyen gugatik edo donostiarra-gatik zer egiñ.

Ordutik du bere izaera Donostiar Kantaritaldeak. ¿Nork esan bear zuben egun ayetan, Royan, Paris, Bartzelona, Bilbao ta oraiñ azkenik Madrillen egiñ bear zubela talde onek chalo ugariyen jabe, kantaturik «Parsifal», «Suite vasca», Aita Otaño-rena, «Umezurtza», Joñe Mari Usandizaga-rena eta beste orlako zenbait gauz on? Len esan detan bezela, Baroja-netik izan zuben bere sorkera, eta lenengo kantatu zituzten gayak izan ziran «Ume eder bat», «Charmangarriya», «Boga, boga », ta beste orlako gai batzuek, Mondragoiko euskal jayetana, oraiñ dala amasei urte.

Uste gabe, bañan aurren samarretik joan bear zuten beste gai batzuek ere arkitu ditut, chamarraren barrengo patrikaran Baroja-netik irtenak, eta utsegiñik egiñ ez dezatan argiratuko ditut datozen errenkada oetan:

«Varias exposiciones dirigidas al señor Gobernador civil de la provincia de Guipúzcoa con el objeto de que se unan al expediente incoado para determinar si la proyectada variación parcial del plano de ensanche de la Ciu-

dad de San Sebastián, debe considerarse ó no como obra de utilidad pública. San Sebastián, Imprenta de Ignacio R. Baroja, 1866.»

Erderaz esaten dan bezela. *El orden de factores no altera el producto.*

Bada orrengatik nai det oraiñ, beste gai oyek baño ezkutuaguan egondu dan gayari eman berari dagokiyona. Aspalditik esana daukat ez detala izan nai iñoren azpergarriya, bañan ¿zer egingo det, eziñ batetan bukatu detan ariyari eldu badiyot?

Nai ta eziña baño, ¿gauza charragorik bai alda? Ez, ez; eta orrengatik, eta lan oni bukaera eman nairik, emango diyot azkenik bukaera ondorengo onekiñ:

«Memoria justificativa de lo que tiene expuesto y pedido la Ciudad de San Sebastián para el fomento y comercio de Guipúzcoa.

Publicada por acuerdo del Ayuntamiento general de vecinos concejantes y Junta de comercio de la misma Ciudad. Año 1832. Con licencia.

En San Sebastián en la imprenta de Ignacio Ramón Baroja, impresor de esta M. N. y M. L. Ciudad y Real junta de comercio.»

Lan oek guztiyak (da esatia azkena datozenak), lenengo orri erditan ipiñi banitu, egokiyago egongo ziran; bañan nola beste aurreaz agertzen diranak egokitu zaizkitan lenago, etorri edo bildu ditutan era berean errenkada oetan eman diyet lekua.

Ez nere gogua ala zalako, bañan bai, ala eskuetaratu zaizkitalako.

Albanezake argipide geyago eman, ez nitzake geldituko lumari lan geyago eragiñazi gabe, zergatik iruditzen zaitan, oraindik oso moch gelditzen naizela Baroja-ren eche edo moldiztegiakiñ.

¡Eun urte!..... ¡Gizaldi osua daramaki lenengo idiki zan ezkeroztik! ¡Eun urte, liburuak egiten asi zala eche au, Inazio Ramon Baroja-ren izenian! Eta gerozkuak, ondo jarraitu, eta jarraitzen diyote echiaren izenari.

Geruago ta indar geyagorekin agertzen da; ta lenengo eche onen nagusiya begira balego, edo zutituko balitz, esango luke ez dituela utzi ondorengo motelak.

¿Geyayo ezer gelditzen ote zait esateko! Ez det uste; oraindañoko berriketak aski dirala deritzot bai, ta luzaroan bizi bitez oraiño nausi Joakin eta Balentin osasun bete betiarekin aurrera ere milla bider aipatu detan echiak zimendurik galdu ez dezan.

Egunak badijoaz
urtiak ere bai
geyago dizkat eche
oni, opa ta nai,
urte askoren zamak
zenbait arbol tantai,
bota oi ditu errez
gañera nolana,
jostalluz artzen badu
amilduz noranai.

Bañan baldin badago
bat ondo betea,
beti agertuko da
sendo ta tentea.

Aurrera ere jarrai zayezute ekin diyozuten jarraierari, bada jakiya ondo chegosten bada, aulkeriyak ez du indarrrik artzen, ta zutik edo tente badago bere indarretan eche bat, eta zuraje onarekin, pipiyak ez du zulatuko.

Au da nere iritziya, Joakin ta Balentin; ustez ondo mintzatzen naiz, bañan nola esaera zar batek esaten duben, *usteak erdiya ustela du-bela* baliteke neri ere iritzi ontan au bera gertatzia, zergatik utsegintzak jakintsuen artian ere gertatzen diran.

Orañ gauza bar buru
nerera datorkit.
¡Al!... zuen mesedean
dena baletorkit:
nere eske pozduna
zuzen badatorkit,
esango det pozkiroz
ondo zeratorkit,
baldiñ zorionakiñ
nigan bazentorkit.

Bai; zorionak nai ditut neretzat, bai ta ere Inazio Ramon Baroja-k ondekitu zuben eche antziñakuarentzat, eta jaun onen ondorengo orañ echiari jarraitzen diyotenentzat, urte askorako osasunakiñ.

Ala gerta bedi.

JUAN IGNACIO URANGA

Donostiyan 1912-^{ko} Azaroa-ren 21-^{an}.